2017-VI-30
Número **531.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela.eus

astekaria

# EDITORIALA

## Estatus politiko berri baten alde

**Iragan asten ELAk Eusko Legebiltzarraren Autogobernu ponentzian parte hartu zuen. Hainbat dira bertatik atera daitezkeen ondorioak. Horietako bat, honakoa: ez daude baldintza politikoak espainiar Estatuarekin aldebiko harremana posible denik defendatzen jarraitzeko. Aldebikotasun posible bakarra dago, Gobernu espainiarrak une bakoitzean hartzen dituen erabakiak onartzea, defizit publikoarekin gertatu den bezala. Hor dugu ere Kupoaren gaineko akordioa, beste adibide bat, zeinak erakusten digun *aitortutako* eskubideak trukerako txanpon gisa erabiltzen direla, espainiar Gobernuak etekinak ateratzen jarrai dezan, murrizketen bidetik jarraitzen duten aurrekontu antisozialekin gertatu bezala. Hain zuzen, ebidentzia hori hartuta –hots, ez dagoela gaur eta orain aldebikotasun posiblerik– abiatu da Kataluniako prozesu soberanista.**

**Langileen ikuspuntutik ez dago autogobernuaz hitz egiterik oinarrizko gaietan erabakitzeko ahalmenik gabe, izan lan harremanak, izan babes soziala. Autonomia Estatutua, bere sorreratik, egiturazko defizit horrekin jaio zen. Horregatik, berau gainditzeko beharra aldarrikatzen dugu; erreforma huts bat ez da nahikoa, horrela izatekotan langileok osatutako gehiengo sozialari iruzur berri bat egitea izango bailitzateke.**

**Esparru soziolaboral eta sozioekonomikoan erabateko konpetentzia legegileak izango dituen estatus politikoa ezinbestekoa da. Modu horretan gure eredu laboral eta soziala erabakitzeko eskubide osoa izango genuke, edo erabateko ahalmena zerga politika, politika ekonomiko eta soziala erabakitzeko. Hala, posible litzateke Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua, baita hemen bizi diren pertsona guztien bizi eta lan baldintzak hobetzea helburu lukeen Eremu Sozioekonomiko bat definitzea ere. Etorkizunari begira jar gaitezen!**




## ELA reinvindica un nuevo estatus político en la Comisión de Autogobierno del Parlamento Vasco

# "SI UNA PARTE NO QUIERE ACORDAR, SOLO QUEDA LA UNILATERALIDAD"

El secretario general de ELA, Adolfo Muñoz *Txiki*, participó el 21 de junio en la ponencia de Autogobierno del Parlamento Vasco. Muñoz comenzó su participación instando al Parlamento Vasco a iniciar un proceso soberanista que garantice la participación del movimiento sindical y social.

"Nos gustaría que ese proceso fuera acordado, pero hoy en día es imposible. El Estado español no reconoce a Euskal Herria como sujeto político pleno para tomar sus decisiones. Para ELA es obvio que no se pude mantener una relación bilateral con alguien que no te reconoce como sujeto. La vía para avanzar con el Gobierno español en la mejora del autogobierno está agotada, el Estado ya ha decidido que no facilitará la reforma del Estatuto de Gernika. En esta coyuntura, no queda otra cosa que la vía unilateral".

Muñoz mostró el compromiso de ELA con un proceso soberanista que tenga como base un cambio radical de las políticas, destinado al cambio de modelo económico y social al servicio de la mayoría social. "Este proceso es incompatible con seguir manteniendo la ficción de que la bilateralidad con el Estado español es posible. Por tanto, debe ser un proceso soberanista unilateral. Este proceso soberanista debe lograr el reconocimiento de Euskal Herria como sujeto político con derecho a decidir libremente su propio marco jurídico".

En opinión del secretario general de ELA, el proceso soberanista debe incluir a todo quien quiera estar. "Solo puede haber un límite: la voluntad de la ciudadanía vasca. En este sentido, es imposible acordar un nuevo estatus político con quien, como PSE-EE y PP, niegan tu identidad como sujeto. El proceso necesita una mayoría social, pero quien no quiera estar que no esté. Por eso, nos parece incomprensible reconocerles a esos dos partidos derecho a veto a la hora de reconocer un nuevo estatus para nuestro pueblo. Partidos, por cierto, que son una minoría en el Parlamento Vasco".




### SOLIDARIDAD CON EL PROCESO DE CATALUNYA

Durante su intervención en la ponencia de Autogobierno Adolfo Muñoz se solidarizó con el proceso de Catalunya, y denunció el chantaje y el asedio al que está siendo sometido por parte del Gobierno español. "Quieren impedir a toda costa que el pueblo catalán decida su propio futuro. La consulta es un elemento democrático indiscutible. Que el statu quo se rompa por alguna parte es bueno hasta para el Estado español".




### ESTATUS POLITIKO BERRI BAT ALDARRIKATU NAHI DUGU

**Adolfo Muñozen ostean LAB sindikatuko idazkari nagusiak –Garbiñe Aranburu– hartu zuen hitza Eusko Legebiltzarreko Autogobernu ponentzian. Bi sindikatuek ohar bateratua aurkeztu zuten, gai honen inguruan duten iritzia azalduz.**

**"Politikak gehiengo sozialaren zerbitzura jarri behar dira. Nabarmena den gauza da EAEko alderdi sistemikoak (PNV, PSE, PP) botere ekonomikoaren zerbitzura jarri direla. Beste eredu ekonomiko eta sozial bati bide eman behar zaio, ezartzen ari diren politiken erabateko norabide aldaketa ekarriko duena. Legebiltzarrari dei egiten diogu ezaugarri horiek guztiak barnebilduko dituen prozesu bat abiatzera".**



## ELA reivindicó la importancia de la diversidad en la jornada de formación que celebró el 28 de junio con motivo del Día Internacional del Orgullo LGTBIQ+

# SOMOS DIVERSXS, DISFRUTEMOS DE LA DIVERSIDAD




ELA celebró el 28 de junio, Día Internacional del Orgullo LGTBIQ+, una jornada en la sala Bilborock de Bilbao. En la misma, además de Jone Bengoetxea, responsable de igualdad de ELA, participaron Aingeru Mayor y Sarai Montes. Además se proyectó el documental *Diversxs*, realizado por la ONG Apoyo Positivo con el objetivo de ser "un primer guiño a la vida y diversidad de las nuevas generaciones".

**Aingeru Mayor** –padre, sexólogo y miembro de ChrysallisEH– habló sobre el valor de la diversidad sexual en la infancia. Para ello tomó como eje su libro *Niños y niñas*. "El libro pretende mostrar a través de los relatos y fotografías de 27 niñas y niños que hay mil maneras de ser chica, de ser chico... En el mundo hay más de 200 millones de niñas y niños. Y no hay dos que sean iguales".

Por su parte, **Sarai Montes**, presidenta de Errespetuz, Asociación Vasca para la Defensa y la Integración de las Personas Transexuales, habló de sus vivencias como mujer transexual. "Cuando decidí cambiar de imagen me dijeron que de la noche a la mañana iba a encontrarme sin trabajo, sin amigos, sin familia y sin nada. Yo tenía, y tengo, un muy buen Curriculum Vitae; me llovían las ofertas de trabajo. Sin embargo, cuando cambie mi imagen nadie me llamaba. No me discriminaban por ser transexual, me discriminaban por ser mujer".

"El tiempo en el que tu DNI no coincide con tu imagen y tu sexo no te contrata ni Dios. El colectivo transexual tiene un índice de paro del 90%, más alto que ningún otro colectivo".




**No nos llevemos a confusión; un sindicato no renunciará a la lucha de clases, porque es de ahí de donde se deriva su identidad y fundamento. Pero a su vez no puede negar la heterogeneidad y diversidad que existe en el seno de la clase trabajadora: también entre las personas oprimidas hay diferencias.**

**ELA quiere hacer una mención especial de la diversidad. Queremos reivindicar la convivencia en una mezcla multicolor con las personas que normalmente se salen de la centralidad basada en la opción sexual y afectiva y la identidad de género: mujeres con pene u hombres con vagina; personas que no se definen ni como mujeres ni como hombres; que tienen relaciones sexuales y afectivas con cualquier género; que ponen en cuestión la masculinidad y feminidad tradicional…**

**¡Queremos probar nuevos imaginarios y menús! ¡Disfrutemos de la diversidad!**

## MENU BERRIAK DASTATUZ... ANIZTASUNAZ GOZA DEZAGUN!



Emakumea edo gizona. Zuria edo beltza. Heterosexuala edo homosexuala. Aberatsa edo txiroa. Gaixoa edo osasuntsua. Atzerritarra edo bertokoa. Zaharra edo gaztea. Pribilegioduna edo baztertua... Menu itxi bat ematen duen zerrenda dikotomiko honekin jolastuz jarraitu genezake, bi aukera besterik eskaintzen ez duen menu zurruna etengabe elikatuz.

Zaila da ohiko eskemetatik ateratzea, nola ez! Errealitate anitzak irudikatzeko zailtasunak ditugu eta norbanakoen ezaugarri propioetatik abiatu ordez, ohikoa da oso ezberdinak diren errealitateak homogeneizatzea, denak gauza bera balira bezala. Irakurketa bakarra egiteko tentazioa handia da.

Gurean ere bada tentazio hori. Izan ere, sindikalgintzan, eta, zehazki, ELAn, langile-klaseaz hitz egiterakoan, askotan zapaldua den langile-klase homogeneo bati buruz hitz egiteko joera dago. Argi dago nortasun kolektiboa duen klase-borroka "gu" (langileok) eta "besteak" (boterea) dikotomian oinarritzen dela, baina ez dezagun ahaztu zatiketa horretan, errealitate, pertsona eta kolektibo batzuk bazterrera eramateko arriskua dagoela. Akaso ustezko langile klase "oro-hartzaile" batek pertsona eta kolektibo desberdinek pairatzen dituzten desberdintasun eta diskriminazio egoera guztiak barne hartu ditzake? Hau da, akaso gauza bera da langile zuria ala beltza izatea; emakume langilea edo gizon langilea; langile elbarria izan edo ez; transexuala izan edo ez?

Ez larritu, sindikatu batek ez dio uko egingo klase borrokari, bere nortasuna eta funtsa bertan sortua eta eraikia baita. Baina ezin daiteke ukatu langile-klase horren baitan dagoen heterogeneitate eta aniztasuna: zapalduen artean ere desberdintasunak daude.

Aurtengo ekainaren 28an, LGTBIQ+ aren aldarrikapen egunean, ELA sindikatutik aniztasunari egin nahi diogu aparteko keinu eta aipamena. Hautu sexual eta afektibo zein genero identitate anitzak oinarrian hartuta, normalean erdigunetik ateratzen diren pertsona, identitate eta nortasun anitzekin entsalada koloretsuan bizi nahi dugula aldarrikatu nahi dugu: zakila duten emakumeak edo alua duten gizonak; ez emakume eta ez gizon bezala definitzen diren pertsonak; harreman sexual eta afektiboak edozein generorekin dituztenak; gizontasun eta feminitate tradizionala kolokan jartzen dituztenak…

Kultura heteropatriarkalak markatzen gaitu, eta gure bizitza pertsonalaz haratago, erakunde, eragile edo edozein kolektiboren balore, funtzionamendu, arau edo sinesmenetan zuzenean eragiten du, eta, noski, gizartearen parte den heinean, baita ELAn ere.

Aniztasuna "rollo ona" ematen duen hitza da, nor ez dago ba aniztasunaren alde? Diskurtsoaz haratago, ordea, zaila da aniztasuna modu kolektiboan praktikara eramatea.

Aniztasunean bizitzea edo bizi nahi izateak besteen tokian jartzera garamatza, eta horrek deserosotasunak eragin ditzake. Izan ere, geure burua zapaldutzat izan ohi dugu, konturatu gabe, zenbait egoeratan, gu geu garela zapaltzaile. Azken batean, langile oro zapaldua izan daiteke baina zuria, gizona, erdalduna eta heterosexuala izateak ez al dakartza pribilegioak bere gain? Horixe bera da aniztasunak egiten digun ekarpena: geure burua eraiki eta deseraikitzeko prest ote gauden galdetzera behartzen gaitu.

Zentzu honetan, kontrabotere indar izan nahi duen sindikatuak ere badu horretan ardura politikorik; alde batetik, erakundearen kultura, funtzionamendu eta sinesmenak berrikusi, eta bestetik, gogoan izan beti langile zapalduen artean ere badirela desberdintasunak, eta, beraz, begirada anitzen beharra dugula une oro.

Irudi berriak eraiki eta menu berriak probatzeko prest gaude! Goza dezagun aniztasunaz!

***Jone Bengoetxea, ELAko berdintasun arduraduna***

## Ehungintzako langileek ezpainak beltzez margotu zituzten ekainaren 23an, Gipuzkoako merkataritzako hitzarmenaren alde

# HITZARMENIK GABE, ETORKIZUN BELTZA

Gipuzkoako merkataritzako langileek urteak daramatzate hitzarmenik gabe. Rajoyren erreformaren ondorioz hitzarmenen aurrera-eragina 2013ko uztailaren 7an amaitu zen. Ordutik hona zenbait enpresa Merkataritza Orokorraren Hitzarmenaz baliatu dira ordezko hitzarmen gisa erabiltzeko. LABek eta CCOOek Merkataritza Orokorraren Hitzarmena sinatu zutenean, ELAk ez zuen sinatu arrazoi horregatik, hain zuzen, erreformaren aginduz berariazko hitzarmenik izan ezean, goragoko esparruko hitzarmena aplikatu beharko zelako. Hitzarmen horren ondorioz soldatak 7.000 eta 5.000 euro bitartean murriztuko dira, eta lanaldiak 35 eta 9 ordu bitartean luzatu, kasuan kasu.

Egoera honen aurrean, ELAk mobilizazio kanpaina bat hasi du, merkataritza sektoreko hitzarmenen negoziazioaren blokeoa behingoz bukatzeko eskatzeko. Maiatzaren 7an manifestazio jendetsua egin zen Donostian. ELAk sektorean duen arduradun Mirari Irurek azpimarratzen duenez, manifestazio horrek argi utzi zuen langileak nazka-nazka eginda daudela.

"Bada garaia dinamika bat abiarazteko. Ez da oraindik mahaia behin betiko osatu negoziazioak hasteko, baina lortu arte ez dugu etsiko. Patronalak ez dira oraindik ados jarri, baina haien artean konpontzen ez badira argi dago ezin garela betiko geratu negoziazioa noiz desblokeatuko den zain. Horregatik hasi dugu mobilizazio dinamika hau".

### EZPAINAK BELTZ, ASKO DUTELAKO ESATEKO

Mobilizazio sorta honen barruan, ekainaren 23an ekintza bat egin zuten: ezpainak beltzez pintatzea. "Gipuzkoako ehungintzako langileek ez dute geldirik egon nahi. Badakite Gipuzkoako merkataritzako hitzarmenik gabe etorkizun beltza izango dutela. Horregatik margotu genituen ezpainak beltzez, patronalek negoziazioa blokeatzeko hartu duten jarrera salatzeko eta hitzarmena bultzatzeko asmoz. Hitzarmen onak nahi baditugu, haien alde borrokatu beharko dugu".

*"Las trabajadoras del comercio de textil no quieren quedarse de brazos cruzados. Saben que sin el convenio de comercio de Gipuzkoa les espera un futuro muy negro. Por eso el 23 de junio nos pintamos los labios de negro, para denunciar el bloqueo de las patronales a la negociación y para impusar el convenio".*

### ESTA BOCA ES NUESTRA... Y TENEMOS MUCHO QUE DECIR















## LABURREAN / BREVES

### • Langabezia eta pobreziaren hazkundeari erantzuteko, prestazio sozialak areagotu behar dira



Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta osatzen duten sindikatuek bilkurak egin zituzten ekainaren 29an Bilbon –Eusko Jaurlaritza–, Donostian –Eusko Jaurlaritza– eta Gasteizen –Eusko Legebiltzarra–, murrizketa sozialek langile klasean dituzten ondorio larriak salatzeko eta Babes Sozialerako Sistema Publiko bat exijitzeko. Kontzentrazio hauek Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak ekaina osoan zehar antolatu dituen mobilizazioen baita kokatu ziren. Sindikatu hauek –ELA, LAB, ESK, STEILAS, EHNE eta Hiru– ezberdintasun sozialak areagotzen dituzten murrizketa oro bertan behera uztea eskatu zuten.

### • Eraikuntza alorreko Zamagain enpresa, greba mugagabean

Eraikuntza alorreko Estructuras Zamagain enpresako 16 langileak greba mugagabean daude ekainaren 12az geroztik. Grebalariek jaso gabeko soldatak ordaintzea eskatzen diote enpresako zuzendaritzari. Enpresa apiriletik dago hartzekodunen aurre-lehiaketan eta hainbat soldata zor zaizkie langileei. Estructuras Zamagain ESVASA-Amenabar Aldi-Baterako Laneko Enpresaren azpikontratada da, Bilboko Zorrotza auzoan hainbat etxebizitza eraikitzeko; soldata horien ordainketa, beraz, ESVASA-Amenabarri dagokio.

### • Bridgestone condenada por vulnerar el derecho de libertad sindical

El Juzgado Número 9 de los Social ha dado amparo a la demanda interpuesta por ELA y ha condenado a Bridgestone por vulnerar el derecho de libertad sindical, condenando a al empresa a indemnizar al sindicato. ELA considera que la sentencia debe de servir para normalizar la negociación colectiva, tanto en Bridgestone como en el resto de empresas.

### • Greba mugagabea Euskal Forging enpresan

Euskal Forging enpresak Iruran eta Sestaon dituen lantokietako beharginek greba mugagabean daude ekainaren 6a geroztik. Euskal Forging-en bi lantegietan 100 bat langile aritzen dira lanean, eta 2015eko abendutik hona hitzarmenik gabe daude. 2016ko urrian hasi ziren negoziazioak soldata-igoera finkagarri bat eta beste hobekuntza sozial batzuk lortzeko, 2016, 2017 eta 2018. urteetan zehar. Negoziazio horiek, ordea, ez dute emaitza onik izan; enpresak erabateko ezetza eman baitio soldata-igoera finkagarri bati. Enpresaren jarrera tematia ikusita, eta langileekin ezer adosteko batere borondaterik agertu ez duenez, lantegi biek greban iraunen dute aipaturiko eskariak lortu arte.

### • ELA exige a las instituciones implicación en el futuro industrial del grupo Cel

Las y los trabajadoras del Grupo Cel continúan con las movilizaciones en defensa de un futuro industrial. En este sentido, ELA exige su implicación tanto al Gobierno Vasco –ha llegado a tener el 40% del accionariado– como a la Diputación Foral de Bizkaia –propietaria de parte de la maquinaria y pabellones–. La semana pasada la dirección del grupo presentó un concurso de acreedores.



## Igeregik balioa ematen dio tenporalitatea 1.300 lanpostu garbitan murrizteari, baina argi utzi nahi du EPE hau ez dela nahikoa inondik inora behin-behinekotasunarekin amaitzeko

# "ALDI BATERAKO ENPLEGUA %8TIK BEHERA JAISTEKO 10.000 LANPOSTU BERRI BEHAR DIRA"



Osakidetzak ekainaren 23an egindako Mahai Sektorialean iragarri zuenez 2018an 3.335 lanpostutako Enplegu Publikorako Eskaintza egingo du. ELAk Osakidetzen duen arduradun Pello Igeregik azpimarratzen duenez, ondo dago behin-behinekotasuna jaistea, baina Osakidetzaren proposamena ELAren helburuetatik oso urrun dagoela uste du.

**-Zein hausnarketa egiten du ELAk Osakidetzaren zuzendaritzak datorren urterako aurkeztu duen Enplegu Publikorako Eskaintzaz?**

-Balioa ematen diogu tenporalitatea 1.300 lanpostu garbitan murrizteari. 2010. urtetik hona lehen aldiz murriztuko da aldi baterako enplegua Osakidetzan. Hori ondo dago, baina ez da nahikoa. Enplegu Publikorako Eskaintzaren ostean ere behin-behinekotasuna %35etik gora mantenduko da –egun %44an dago–. Zenbaki horiek, beraz, oso urrun daude %8ko helburu horretatik. Kopuru horretara heltzeko 10.000 lanpostu berri sortu beharko lirateke. Horregatik ezezkoa esan diogu EPE honi.

**-Prekarietatearen aurkako borroka ELAren oinarrietako bat da. Zein urrats emango ditu ELAk Osakidetzan arazo honekin amaitzeko?**

-Akordio hobe bat lortu nahi badugu ezinbestekoa da langileak mobilizatzen jarraitzea. Mobilizazio eta erreklamazio judizialik gabe ez litzateke posible izango Osakidetzak azken hamarkadan egin duen EPE handiena martxan jarri izana.

ELAk Europa Batasuneko Justizia Auzitegian irabazitako epai baten ondoren Osakidetzako kontratazioa ezbaian dago, epai horren arabera esan dezakegu momentu honetan Osakidetzan dauden 3.000tik gora langileren kontratuak legez kontrakoak direla, eta behin-behinekoak izan beharrean lanpostu estrukturalak izan beharko liratekeela. Osakidetzak EPE handi bat martxan jartzeko beharra sentitu du, eta hori sindikatuontzat poztekoa da, baina ez da nahikoa.

**-Uda garaian gaude. ELAk urteak daramatza ere urteko sasoi honetan dagoen langile eskasia eta horrek zerbitzuetan dituen ondorioak salatzen. Zein da egoera?**

-Orain uda hilabeteak datoz, opor garaia. Hainbat tokitan arazo oso larriak daude ordezko langileak topatzeko, bereziki medikuak, eta Osakidetzak bere kontratazio politika aldatzen ez duen neurrian mediku askok kontratu hobeen bila Euskal Herritik alde egiten dute. Hau onartezina da.

Osakidetzak eztabaida hau ere saihestu nahi du. ELAk Osakidetzarekin negoziatzeko bere borondatea du; espero dezagun udan bueltan negoziatzeko jarrera topatzea eta enplegua duintzeko zein osasun zerbitzuaren kalitatea bermatzeko aukera aprobetxatzen jakitea.

> *"La OPE anunciada por Osakidetza para 2018 servirá para reducir por primera vez a temporalidad desde el 2010, pero queda muy lejos de los 10.000 necesarios para rebajar la temporalidad por debajo del 8%"*

## ELA y LAB exigen que el proyecto de Ley de Contratos Públicos de Navarra incorpore cláusulas sociales

# "ESTAMOS ANTE UNA OPORTUNIDAD PERDIDA"



**En la imagen responsables de ELA y LAB en la comparecencia del 29 de junio para valorar el proyecto de ley de Contratos Públicos**

Imanol Pascual, responsable de ELA en Navarra, considera que "el proyecto de ley de Contratos Públicos presentado por el Gobierno de Navarra no ha tenido en cuenta ninguna de las aportaciones principales que ELA y LAB hemos realizado. Ni se garantiza la inclusión por ley de la subrogación en todas las contratas, ni se incluyen, con carácter obligatorio, cláusulas sociales que obliguen a las administraciones en primera instancia, y a las empresas adjudicatarias después, a respetar unos mínimos estándares de empleo, de condiciones de trabajo, de medidas de respeto a las condiciones de seguridad y salud, de no discriminación en la contratación, de participación sindical..."

Pascual considera que la tramitación de La Ley de Contratos Públicos que en breve llegará al Parlamento de Navarra es una oportunidad para establecer mecanismos legales que posibiliten una mayor calidad en el empleo. "La subcontratación de servicios públicos ha generado en Navarra una auténtica administración paralela que da empleo a miles de trabajadores y trabajadoras. Más allá de otras consideraciones, esta subcontratación supone en muchos casos un nicho de negocio para las empresas privadas, demasiadas veces a costa de las condiciones de trabajo de las personas empleadas en los mismos".

ELA y LAB, además de presentar aportaciones a Ley de Contratos Públicos de Navarra, han solicitado reuniones con todos los grupos parlamentarios para que durante la tramitación de la Ley incorporen al texto final las cláusulas sociales propuestas por estos sindicatos.

**www.ela.eus / @ELAsindikatua / ELA-Facebook**

**Franqueo concertado**
**nº 08/207**

ELA EUSKAL SINDIKATUA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

**www.ela.eus**